Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4700

EBAZPENA, 2010eko irailaren 3koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria eliza, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena onartu zen.

Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria eliza daukan kultura interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria eliza, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinean egindako mugaketa eta II. eranskinean egindako deskribapenaren arabera, hala nola III. eranskinean atxikitzen den babes-araubidea ere kontutan hartuz.

Espediente honi hasiera emateak uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak sailkatutako ondasunentzat ezartzen duen babes-araubidearen behin-behineko aplikazioa eragingo du Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria elizarengan.

Bigarrena.– Moreda de Álavako Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari honako honen berri ematea: prozedurari hasiera emateareKin batera eten egingo direla eragindako eremuan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko emandako udal-baimenak eta ez dela aurrerantzean horrelako baimenik emateko biderik izango eremuan. Inguru horretan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezken lanak egin behar badira, beti ere, Foru Aldundiaren baimena izan beharko da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4700

RESOLUCIÓN de 3 de septiembre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la Iglesia de Santa María de Moreda de Álava (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la misma, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural de la Iglesia de Santa María de Moreda de Álava (Álava) y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la Iglesia de Santa María, sita en Moreda de Álava (Álava), según la delimitación que se determina en el anexo I de la presente resolución y teniendo en cuenta la descripción que en el anexo II se establece de la misma, así como el régimen de protección que se incorpora en el anexo III.

La incoación de este expediente determinará respecto a la Iglesia de Santa María de Moreda de Álava (Álava), la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados.

Segundo.– Hacer saber al Ayuntamiento de Moreda de Álava, así como a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas ya otorgadas, así como el cese de su otorgamiento. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral.

Hirugarrena.– Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria eliza, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. eranskineko deskribapena kontutan hartuz eta babesaraubide gisa III. eranskinean agertzen dena ezarriz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Laugarrena.– Interesdunei, Monumentu izendapenaz Moreda de Álavako (Araba) Santa Maria eliza, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientearen mugaketa, deskribapena eta babesaraubidea jakinaraztea, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasi eta 15 eguneko epean beren eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin eta dokumentuak aurkez ditzaten.

Bosgarrena.– Indarrean dauden xedapenen arabera espedientearen izapideak jarraitzea.

Seigarrena.– Ebazpena interesdunei, Moreda de Álavako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 3a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Tercero.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la Iglesia de Santa María de Moreda de Álava (Álava), en base a la delimitación que figura en el anexo I, teniendo en cuenta la descripción del anexo II y estableciendo el régimen de protección que se incorpora como anexo III del mismo, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estimen oportunas, como previene los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Cuarto.– Notificar a los interesados la delimitación, descripción y régimen de protección relativo al expediente incoado para la declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la Iglesia de Santa María de Moreda de Álava (Álava), para que, durante el plazo de 15 días contados a partir del día siguiente a la recepción de la notificación, puedan efectuar alegaciones y presentar la documentación que estimen pertinente en defensa de sus derechos.

Quinto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Sexto.– Notificar la presente Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Moreda de Álava, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Séptimo.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de septiembre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

Mugaketaren esparrua

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurumari urbanizatua hartzen ditu.

Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: ekialdetik eta mendebaldetik, San Jose kalea eta La Concepción plaza; hegoaldetik eta iparraldetik, bertako eraikinak.

Mugaketaren zergatia

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Santa Maria elizaren ingurumariko ingurumen-balioak, estetikoak eta bisualak babestu behar direlako. Herriaren egituraren barruan, hiri-inguruaren zati bat da, muinoaren goialdean nabarmen.

Inguruaren mugaketak –beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioztatzeko– zera dakar, elizaren ondoko inguruak ere babestea, bestela ez baita ulertzen ondasunaren jatorrizko izaera zeremoniala, ezta multzoaren batasuna bera ere edo hiri-bilbearen barnean egotea.

Hori dela eta, mugaketak ez du soilik elizaren eraikina hartzen, ezpada ere haren ingurumaria.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

Ámbito de la delimitación

El ámbito de delimitación incluye por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno urbanizado que lo circunda.

En el caso que nos ocupa, los límites del ámbito o área de delimitación son los siguientes: al este y al oeste la calle San José y la plaza de la Concepción; al sur y al norte las edificaciones existentes.

Justificación de la delimitación

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del entorno de la iglesia de Santa María. Dentro de la estructura urbana de la villa, forma parte del entorno urbano que se ubica ocupando un lugar destacado sobre la cima del cerro.

La debida protección y puesta en valor del bien implica la protección de espacios adyacentes a la iglesia, sin los cuales no se entiende su carácter ceremonial originario, la unidad del propio conjunto y su inclusión en la trama urbana.

Por todo lo expuesto, esta delimitación incluye no sólo la edificación de la iglesia propiamente dicha, sino también el entorno que la rodea.


CALLE
SAN JOSE
STA. MARIA
MOREDA
CALLE
SAN JOSE
PZA. DE LA
CONCEPCION
SANTA NUNILO
PZA. DE LA
CONCEPCION
C/ S. PRUDENCIO
CALLE
CALLE
ESKALA / ESCALA
10 5 0 10 Metros
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
(Araba) Moreta Hirian Santa Mariaren elizako mugapena
Delimitación de la iglesia Santa María sita en la villa de Moreda
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: MOREDA DE ÁLAVA
Data / Fecha: 30/06/2009
Eskala / Escala: 1:500

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Moredako Santa Maria elizaren egituran hainbat eraikuntza-etapa gainjartzen dira. Lehenengo etapari lotzen zaizkio oraingo elizaren aurreko beste baten aztarnak, seguru asko Erdi Arokoak; bigarren etapan (XVI. mendea) oraingo nabea eraiki zen, haren ganga-formako bi atalak, aurrealdea eta elizako koroa barne; hirugarren fasekoa da dorre-burua; XVII. mende bukaera eta XVIII.aren hasierakoak dira, azkenik, burualdea, gurutzadura eta hormetako pinturak.

Geroztik egin diren aldaketek ez dute eraginik izan elizaren eite orokorrean.

Eliza harlanduzkoa da. Gurutze latinezko oinplanoa du, bi nabe-atalekin, gurutzadura, burualdea eta dorre atxikia, nabearen oinaldean kokatua. Beharbada aurreko eraikinen baten gainean altxatu zen. Nabearen barnean kontrahormak eta arku zorrotzeko hormak altxatzen dira, non Gotikotik Errenazimentura bitarteko trantsizioko leiho zabalak dauden, berriki zaharberrituak. Hori dela eta, zenbait leiho gotiko biki ikusten dira, arku trilobulatudunak. Gurutzadurak burualdean ganga semiesferikodun kupula bat dauka, petxinetan bermatua eta alboetan ertz-gangak dituena, eta kapera nagusia bezala pinturaz apainduta dago.

Dorrea oinplano karratukoa da, harlanduzkoa. Bi gorputz ditu eta elizaren behealdea erabiliz eraiki zen nagusiki. Goiko gorputzak kanpai-arkuak ditu, eta burualdean kupula semiesferikoak.

Elizaren sarbidea XVI. mende aurreratuxeko portada plateresko bat da. Kapitel korintoarra duten bi koloma ildaskatuk eusten diote arkitrabeari, eta bertan frontoi triangeluarra bermatzen da, Aita Betikoaren figura bat duena hiru pitxar estilizatuz lagunduta. Multzo honek arku erako atalburu bat du, pilastren gainean, gruteskoz apaindurik. Frisoa arkitrabetik aingeru-burudun frontoiraino doa.

Barruan korua dago, bigarren fasean eraikitako arku kakotu baten gainean. Behe-ganga izardun bat du, lerro makurrak eta giltzarri laua dituena. Handik hara, 1801. urtean, oraingo burdinazko baranda erantsi zitzaion. Sakristia oinplano angeluzuzenduna da, beheratutako kupula obaldun sabaiarekin.

Elizaren mendebaldean gorputz exentu bat dago, agian aurretik eraikitako hiru ferra-arkurekin, inguruko ermita zahar batetik ekarria.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

La iglesia de Santa María de Moreda presenta una estructura en la que se superponen diversas etapas de construcción del templo. A la primera época se le atribuyen los restos de una iglesia anterior a la actual, probablemente medieval; a la segunda, S. XVI, la construcción de la nave actual con sus dos tramos abovedados, incluida la portada y el coro iglesia; una tercera fase correspondiente con el remate de la torre; por último a finales del S. XVII y principios del S. XVIII, la construcción de la cabecera, el crucero y las pinturas murales.

Las modificaciones que se realizan posteriormente no afectan a la fisonomía general del templo.

El templo, de fábrica de sillería, presenta planta de cruz latina con dos tramos de nave, crucero, cabecera y torre anexa situada a los pies de la nave. Se encuentra edificada, posiblemente, sobre los restos de una edificación anterior. En el interior de la nave se levantan los contrafuertes y paredes en arco apuntado donde se ubican ventanales de transición del gótico al renacimiento, recientemente restaurados. A este respecto, se observan algunas ventanas góticas geminadas y con arcos trilobulados. El crucero se remata con una cúpula de media naranja apoyada sobre pechinas y en sus lados con bóvedas de arista y, al igual que la capilla mayor, se encuentra decorado con pinturas.

La torre es de planta cuadrada, de sillería, con dos cuerpos y fue construida, en su mayor parte, con la parte inferior del templo. Su cuerpo superior presenta los arcos de las campanas y es rematada con una cúpula de media naranja.

El acceso a la iglesia se realiza a través de una portada de estilo plateresco de entrado el siglo XVI. Dos grandes columnas estriadas con capitel corintio sostienen el arquitrabe sobre el cual se eleva un frontón triangular con la figura del Padre Eterno rematada con tres jarrones estilizados. Este conjunto presenta un dintel en arco, sobre pilastras, ornamentado con grutescos. El friso corre entre el arquitrabe y el frontón de cabezas de ángeles.

En el interior, se encuentra el coro, sobre un arco escarzado, construido en la segunda fase. Dispone de una bóveda inferior de estrella con trazos curvos y claves lisas. Posteriormente, en 1801 se le añadió la baranda actual de hierro. La Sacristía es de planta rectangular con techo de cúpula oval rebajada.

En el Oeste del templo existe un cuerpo exento de tres arcos de herradura de una posible construcción anterior, perteneciente a una antigua ermita de la zona.

III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
BABES-ARAUBIDEAREN XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Babes-araubidearen helburua.

Babes-araubide hau Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12. artikuluan esaten denaren arabera idatzi da, Moredako Santa Maria eliza sailkatutako monumentu deklaratzeko espedientea hasteko prozedurari jarraituta.

2. artikulua.– Aplikazio eremua.

Ondoren zehazten den babes-araubidea Moredako Santa Maria eliza aplikatuko zaio, hurrenez hurren I. eta II. eranskinetan ezarritako mugaketaren eta deskribapenaren arabera.

3. artikulua.– Babes berezia behar duten elementuak zehaztea.

Babes berezia honako elementu hauek izango dute:

– Bolumetria eta espazio-eraketa, hormetako eta gangako polikromiarekin batera.

– Eliza bera eta eliza osatzen duten elementu guztiak, baita dorrea eta hiru ferra-arku dituen gorputz exentua ere.

4. artikulua.– Izaera loteslea.

Babes-araubide honetako manuek izaera loteslea izango dute, eta araubide hori begiratuz kontserbatu beharko da erakina. Era berean, hirigintza-plangintzako tresnei ere eragiten die araubideko manuek, eta, beraz, tresna horiek ere bete egin beharko dute babes-araubide hau, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 28.1 artikuluan ezartzen duen bezala. Aipatu lege-arau hori betetzeko, babes-araubide honen helburu den eraikinari aplikatu beharreko hirigintza-planeamenduak nahitaezkoa izango du onartu aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aldeko txostena lortzea.

5. artikulua.– Manu orokorrak.

1.– Babes-araubide honek babesten duen ondasuna Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritakoaren menpe egongo da baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arau-hauste eta bestelakoei dagokienez.

2.– Babes araubide honen eraginpean dagoen ondasunaren jabeek Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 20. eta 35. artikuluek eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 19. artikuluak ezartzen dituzten kontserbazio-, zaintza- eta babes-betebeharrak bete beharko dituzte.

ANEXO III

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES DEL RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

Artículo 1.– Objeto del Régimen de Protección.

El presente Régimen de Protección tiene justificada su redacción según el artículo 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, en base a la incoación de expediente para la declaración de la Iglesia de Santa María de Moreda como Monumento Calificado.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

El Régimen de Protección que se fija a continuación será de aplicación para la Iglesia de Santa María de Moreda, según delimitación y descripción establecidas en los anexos I y II respectivamente de declaración del citado edificio.

Artículo 3.– Determinación de elementos objeto de especial protección.

Los elementos objeto de una protección especial en el edificio calificado son los siguientes:

– La volumetría y organización espacial junto con la policromía muraria y de bóveda.

– La iglesia propiamente dicha con todos los elementos que la conforman, incluyendo la torre y el cuerpo exento de tres arcos de herradura.

Artículo 4.– Carácter vinculante.

Las prescripciones del presente régimen de protección tienen carácter vinculante, debiendo conservarse el inmueble con sujeción al mismo. Asimismo las prescripciones del presente régimen vinculan a los instrumentos de planeamiento urbanístico que deberán ajustarse a aquél, tal como prevé el artículo 28.1 de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco. En cumplimiento del citado precepto legal, el planeamiento urbanístico aplicable al inmueble objeto del presente régimen de protección requerirá informe favorable del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 5.– Prescripciones generales.

1.– El bien afecto al presente Régimen de Protección estará sujeto en cuanto a régimen de autorización, uso, actividad, defensa, sanciones, infracciones y demás extremos a lo previsto en la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.– Los propietarios del bien afecto al presente Régimen de Protección vendrán obligados al cumplimiento de las obligaciones de conservación, cuidado y protección impuestas por la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco en sus artículos 20 y 35, y por el artículo 19 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

3.– Ondasuna osorik edo horren zati bat botatzea Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ezin izango da baimendu.

II. KAPITULUA
ERABILERAK

6. artikulua.– Baimendutako erabilerak.

1.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, ondorengo erabilerak baino ez dira baimenduko: elizaren ezaugarrietara egokitzen direnak eta higiezina modu egokian zaintzen uzten dutenak, eta horrekin batera, babesteko araubide honen 3. artikuluan aipatzen diren elementuetarako babes zuzen eta berezia eskainiko duten erabilerak.

2.– Debekatuta egongo dira aurreko pasartean sartzen ez diren gainerako erabilera guztiak.

7. artikulua.– Irisgarritasunari buruzko araubideari eta suteen aurkakoari egokitzea.

Babestutako ondasunean egokitutako erabilera berriek eta burututako jarduerek, irisgarritasunari buruz eta suteen aurkako babesteari buruz indarrean dagoen araudiko irizpideez gain, Babes Araubide honen III. Kapituluan ezarritako mugak beteko dituzte.

III. KAPITULUA
ESKU HARTZEKO ARAUBIDEA

1. ATALA
ESKU HARTZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

8. artikulua.– Esku hartzeko proiektuak.

Babes araubide honen xede den ondasunean inolako esku-hartzerik egin aurretik, dagokion esku hartzeko proiektua egin beharko da. Proiektu horrek ondorengo edukia izan beharko du:

1.– Eraikinaren egungo egoeraren gaineko dokumentu grafikoa, 1/50 eskalan solairuetarako, fatxadetarako eta sekzioetarako, 1/20 eskalako xehetasun arkitektonikoekin; argazki-dokumentazio osoa, plano historikoak eta abar. Bereziki jaso beharko da egitura-sistemaren berri, zehaztasun osoz, neurriak eta akotazioak adieraziz, bai eta altxaduren analisi estratigrafiko osoa ere, aurrez dagoen dokumentazioa aztertuta eta kontuan hartuta unitate estratigrafiko guztiak, bai eta bakoitzari buruzko erregistro-fitxak idatziz, berariaz transkribatuz fabrika-liburuak.

2.– Honako hauek deskribatuko dituen dokumentazio grafikoa: zer esku-hartze egin behar den, zein material erabiliko den, lanak burutzeko faseak, eta proiektua amaieran nola geratuko den, aurreko ata-

3.– Únicamente podrá procederse al derribo total o parcial del bien de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

CAPÍTULO II
LOS USOS

Artículo 6.– Usos permitidos.

1.– En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 7/1990 de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, únicamente se permitirán los usos que se adapten a las características de la Iglesia y que permitan garantizar la adecuada conservación del inmueble, y la debida y especial protección que se establece para los elementos señalados en el artículo 3 del presente régimen de protección.

2.– Se considerarán usos prohibidos todos aquellos que no se hallen incluidos en el apartado precedente.

Artículo 7.– Adecuación a la normativa de accesibilidad y protección contra el fuego.

La adaptación para cualquier tipo de nuevo uso y las intervenciones que se lleven a cabo sobre el bien protegido, contemplarán el cumplimiento de los criterios de accesibilidad y protección contra el fuego establecidos por la normativa vigente en la materia con los límites de actuación fijados para el edificio en el Capítulo III de este Régimen de Protección.

CAPÍTULO III
RÉGIMEN DE INTERVENCIÓN

SECCIÓN 1.ª
CRITERIOS GENERALES DE INTERVENCIÓN

Artículo 8.– Proyectos de intervención.

Con carácter previo a la ejecución de cualquier intervención que se pretenda llevar a cabo sobre el bien sometido al presente régimen de protección deberá elaborarse el correspondiente proyecto de intervención con el siguiente contenido:

1.– Una documentación gráfica detallada de su estado actual, a escala 1/50 para las plantas; fachadas y secciones, con detalles arquitectónicos a 1/20, documentación fotográfica completa, planos históricos, etc.; con especial incidencia, tanto en el levantamiento detallado, dimensionado y acotado, del sistema estructural como, en el análisis Estratigráfico completo de los alzados, previo estudio de la documentación existente, teniendo en cuenta todas las Unidades Estratigráficas y redactando fichas de registro completas para cada una de ellas; haciendo especial hincapié en la transcripción de los Libros de Fábrica.

2.– Documentación gráfica en la que se describirán: las intervenciones a realizar; los materiales a utilizar; las fases para la ejecución de los trabajos, así como el estado final proyectado a las escalas antes ci-

an aipatutako eskalak erabiliz. Esku-hartzeek fabrikei eragiten badiete, Egikaritze Unitate bakoitzaren fitxak idatziko dira, erregistro zehatza izateko.

3.– Kontserbazio-egoeraren azterketa, besteak beste jaso beharko duena egitura-sistemari eragiten dioten edo eragin diezaioketen patologien azterlana eta elementu horiek zaintzeko aurreikusten diren neurriak.

4.– Egin beharreko lanak eta erabili beharreko teknikak azalduko dituen dokumentazio idatzia, honako alderdi hauek jasoko dituena: erabiliko diren materialen kalitatea eta egokitasuna, eta materialok gainerako osagaien ondoan zer egonkortasun izango duten eta elkarri nola eragingo dioten aztertuz.

5.– Eraikinaren bizitza ziurtatzeko eta behar bezala mantentzeko beharrezko teknikak eta baliabideak zehaztea.

6.– Esku-hartzearen aurrekontua, lanak babes-araubide honetako manuen arabera behar bezala gauzatzeko behar diren teknika eta bitarteko guztiak kontuan hartuta.

9. artikulua.– Debekatutako esku-hartzeak.

Eraikinetan egin daitezkeen esku-hartzeen helburua eraikinaren balio historiko arkitektonikoak babestea da. Hori dela eta, babes berezia behar duten oinarrizko elementuen ezaugarriak aldatuko lituzketen obra edo esku-hartzeak debekatu egin dira, babes-araubide honetako 3. artikuluan aipatutako elementu horiek ematen baitiote balioa eraikinari.

Oro har, ezin izango dira egin segidan aipatzen diren esku-hartzeak, ezta elizaren balio historiko-arkitektonikoei kalte egin diezaieketenak eta babes-araubide honetako beste edozein xedapenen kontra doazenak ere. Hartara, jarduera hauek debekatuta egongo dira berariaz:

1.– Eraikinen bolumena aldatzea.

2.– Jatorrizko eraikinei erantsitako eraikuntzekin zerikusia duten azalera-aldaketak, edo oinaren luzera edo zabalera handitzea.

3.– Aldaketak egitea fatxadetan edo fatxaden osagaietan edo tratamenduetan, edo fatxadaren jatorrizko antolaeran edo hutsarteen kopuruan. Izan ere horien jatorrizko forma, neurri eta proportzioei eutsi behar zaie.

4.– Estalkien jatorrizko antolaera aldatzea, esate baterako, eliza jasotzeko obrak, malda nahiz faldoiak aldatzea, bai antolaketan bai kopuruz.

5.– Elizaren barrualdea aldatzea, bolumetria, banaketa eta solairu arteko zatiketei dagokienez. Apainketako osagai arkitektoniko jatorrizkoak agerian egon behar dira beti.

tadas. En el caso de que las intervenciones a realizar afectasen a las fábricas, se redactarán las fichas de cada Unidad de Ejecución a fin de contar con un registro exhaustivo.

3.– Análisis del estado de conservación en el que se incluirán, entre otros un estudio de las diferentes patologías que incidan o puedan incidir en el sistema estructural y las medidas previstas para la preservación de los diversos elementos.

4.– Documentación escrita que explicará los trabajos a realizar y las técnicas a utilizar, señalando la calidad de los materiales a utilizar, la idoneidad de los materiales utilizados y su estabilidad e interacción con los demás componentes.

5.– Determinación de las técnicas y medios necesarios para el adecuado mantenimiento y aseguramiento de la vida de la edificación.

6.– Presupuesto de la intervención, acorde con las técnicas y medios necesarios para la adecuada ejecución de las obras de acuerdo con las prescripciones del presente régimen de protección.

Artículo 9.– Actuaciones prohibidas.

El objeto de la limitación de las intervenciones permitidas sobre el edificio es la conservación de los valores histórico-arquitectónicos del mismo. A tal efecto se prohíben aquellas intervenciones que puedan alterar las características de aquellos elementos fundamentales de especial protección, que confieren su valor al edificio, que están enumerados en el artículo 3 de este Régimen de Protección.

De forma general, no se permitirá la realización de aquellas intervenciones que se citan a continuación y, además de las que supongan daño o menos cabo para los valores histórico-arquitectónicos de la Iglesia, las que contravengan cualquier otro extremo del presente Régimen de Protección. A tal efecto, se considerarán explícitamente como actuaciones no autorizadas:

1.– Modificaciones de volumen.

2.– Variaciones de superficie que lleven asociadas edificaciones anexas al edificio original, o aumentos de longitud o de anchura de la planta.

3.– Modificaciones de las fachadas, de los elementos que las componen, de su tratamiento, y de la disposición original y número de huecos de fachada, debiéndose mantener los tamaños y proporciones originales de los mismos.

4.– Modificaciones de la disposición original de las cubiertas, como levantes, cambio de pendientes y número de los faldones.

5.– Modificaciones del interior de la iglesia en cuanto a su volumetría, compartimentación o la subdivisión en pisos, debiéndose mantener los elementos arquitectónicos de decoración originales.

6.– Elizaren egitura-antolaketa orokorra edo haren osagaiak aldatzea.

7.– Babes-araubide honetako 3. artikuluan aipatutako babes bereziko elementuei dagokienez, estiloeransketak egitea, baita obra amaituaren itxura nolakoa izan den edo nola azaldu behar duen aditzera eman dezaketen dokumentu grafiko edo plastikorik egon arren ere.

8.– Eraikinaren ikuspegia murriztu dezaketen ingurumariko esku-hartzeak.

9.– Oro har, babes-araubide honetako 2. atalean (esku hartzeko irizpide espezifikoak) aipatzen ez diren esku-hartze guztiak, babes berezia duten elementuen gain egin beharrekoak.

2. ATALA
ESKU HARTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

10. artikulua.– Esku hartzeko irizpide espezifikoak.

Babes-araubidearen atal honetan deskribatzen diren esku hartzeko irizpide espezifikoek argitzen dute nola eta zein mugaketarekin esku har litekeen eliza osatzen duten elementuetan.

1.– Babes-araubide honetako 3. artikuluan babes bereziko modura aipatutako elementuetan, 317/2002 Dekretuan zaharberritze zientifikoari begira ezarritako lanak bakarrik egin ahal izango dira. Dekretu horrek ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuak arautzen ditu.

2.– Eraikinei erabilera berria ematen baldin bazaie, egokitze-lanak ahalik eta txikienak izango dira; ahal dela barne-moldeei eutsiko zaie estu eta zorrotz, eta ezingo dira egitura-antolaketaren ezaugarriak aldatu, ez eta barne-espazioen segidarenak ere, eta ezingo dira horiek solairutan zatitu edo banatu.

3.– Baimentzen diren obretarako beharrezkoa izango da baldintza hauek betetzea:

– Saihestu egingo dira eraikinaren kanpo-ehundura edo akaberen osaera ezin berreskuratzeko moduan alda dezaketen garbiketa-tratamenduak. Garbitzen hasi aurretik eta materialen osaera aztertu ondoren, elementurik ahulenak babestu egingo dira eta zirrikitu eta junturak itxi egingo dira.

– Hormak eta egitura-elementuak: egoera txarrean badaude, horiek nola sendotu aztertuko da, erabil daitezkeen teknika guztiak aintzat hartuta. Horma desmuntatzea edo berreraikitzea saihestuko da, non eta horiek ez diren aukera bakarrak.

6.– Modificaciones de la organización estructural de la iglesia y de los elementos que la componen.

7.– Con relación a los elementos mencionados en el artículo 3 objeto de especial protección: adiciones de estilo aun cuando existan documentos gráficos o plásticos que puedan indicar como haya sido o deba aparecer el aspecto de la obra acabada.

8.– Intervenciones en el espacio circundante que reduzcan la presencia visual de la iglesia.

9.– En general todas aquellas intervenciones que no estén previstas en la Sección 2.ª (criterios específicos de intervención) de este Régimen de Protección, a realizar sobre los elementos objeto de especial protección.

SECCIÓN 2.ª
CRITERIOS ESPECÍFICOS DE INTERVENCIÓN

Artículo 10.– Criterios específicos de intervención.

Los criterios específicos de intervención que se describen en esta sección del Régimen de Protección, establecen de qué forma y con qué limitaciones se permite intervenir sobre los elementos que componen la iglesia.

1.– Sobre los elementos de especial protección señalados en el artículo 3 del presente régimen de protección sólo se permitirá la realización de las obras establecidas para la Restauración Científica en el Decreto 317/2002, que regula las actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

2.– Las obras de adaptación, en caso de darse una nueva utilización del edificio, deberán quedar limitadas al mínimo, conservando escrupulosamente las formas internas y evitando alteraciones sensibles de las características de la organización estructural y de la secuencia de los espacios interiores de la iglesia, no permitiendo la compartimentación o la subdivisión en pisos de los mismos.

3.– Para las obras autorizadas serán de obligado cumplimiento las siguientes condiciones:

– Se evitaran los tratamientos de limpieza que alteren de forma irrecuperable la textura exterior o la composición de los acabados del edificio. De forma previa a la limpieza y tras el análisis de la composición de los materiales, se protegerán los elementos más frágiles y se procederá al sellado de juntas y grietas existentes.

– Muros y elementos estructurales en general: cuando estén en mal estado se estudiará su consolidación mediante las diferentes técnicas posibles, de tal suerte que el desmontaje y reconstrucción sea la respuesta última.

– Instalazioak: instalazioen garraiobideak erraz iristeko modukoak izango dira eta, aldi berean, ez oso agerikoak. Ezingo dira horma-egitura barruan egin.

– Ondare babestuan egindako esku-hartze orotan, etorkizuneko zaharberritzeko esku hartzeak oztopatuko ez dituzten teknika eta materialak erabiliko dira. Babestutako ondasuna zaharberritzeko egin beharreko lanen ardura profesional eta enpresa espezializatuei emango zaie, lan horiek egiteko behar den gaitasun teknikoa badutela erabateko bermeekin egiaztatzen dutenei, hain zuzen.

11. artikulua.– Baimenduko diren eraikitzeko esku hartzeak.

Baimendutako esku-hartzeak ondorengoak izango dira, baina eraikinaren elementu tipologiko, formal eta egiturazkoak errespetatzekotan beti:

1.– Arkitektura-espazioa zaharberritzea eta aldatutako zatiak leheneratzea, ondokoen bitartez:

– Barneko edo kanpoko fatxaden zaharberritzea, ahal dela jatorrizko hutsarteak errekuperatuz.

– Jatorrizko arotzeriaren edozein elementu zaharberritzea –fatxadako hutsarteetan, beirateetan, apaingarrietan eta abarretan–, bai eta interesa duen beste edozein elementurena edo, hala badagokio, material eta diseinu berdinez egindako elementu berrien ordezkapena, halako moduan non jatorrizko eitea berreskuratuko den.

– 3. artikuluan aipatutako babes bereziko elementuetako barne-espazioak zaharberritzea.

– 3. artikuluan aipatutako osagaien jatorrizko banaketa edo leku-antolaketa gorde edo lehengoratzea.

2.– Errekuperaezinak diren zatiak kenduz egin beharreko sendotze-lanak, aldatu gabe kanpo- eta barne-fatxaden kokalekua edo kota, pilareak, mentsulak, forjatuak, gangak, eskailerak, jatorrizko materialaz egindako estalkia, 3. artikuluan aipatzen diren babes bereziko elementuak eta abar.

3.– Eranskin itsusgarriak kentzea, baita interesik ez duten edo eraikinaren, eraikuntza unitatearen edo berorren ingurunearen jatorrizko ezaugarri arkitektonikoekin bat ez datozen obra guztiak desegitea ere.

4.– Behar-beharrezkoak diren instalazioak jartzea, betiere babes-araubide honetako gainerako manu guztiak errespetatuz.

5.– Hondatutako bestelako akabera-elementuren bat konpontzeko obrak, betiere ez bada egiturazko edo eusteko funtziorik.

– Instalaciones: las conducciones de instalaciones se ejecutarán de forma que resulten fácilmente accesibles al tiempo que discretas, no permitiéndose su ejecución empotrada en el sistema murario.

– En toda intervención sobre el bien protegido, se utilizarán técnicas y materiales que no imposibiliten en el futuro otra intervención de restauración. La ejecución de los trabajos pertinentes para la restauración del bien protegido deberá ser confiada a empresas especializadas que acrediten debidamente la capacidad técnica necesaria para llevarlas a cabo con las máximas garantías.

Artículo 11.– Intervenciones constructivas permitidas.

Las intervenciones autorizadas serán aquellas que respetando los elementos tipológicos, formales y estructurales de la construcción, se citan a continuación:

1.– La restauración del espacio arquitectónico y el restablecimiento en su estado original de las partes alteradas a través de:

– La restauración de fachadas interiores y exteriores, con la recuperación de huecos originales allí donde sea posible.

– La restauración de cualquier elemento de carpintería original, en huecos de fachada, vidrieras, decoraciones, etc. u otros elementos de interés o en su caso su sustitución por elementos nuevos de materiales y diseño iguales, que permitan recuperar el aspecto original.

– La restauración de espacios internos de los elementos objeto de especial protección, mencionados en el artículo 3.

– La conservación o el restablecimiento de la distribución y organización espacial original de los elementos mencionados en el artículo 3.

2.– La consolidación con sustitución de las partes no recuperables sin modificar la posición o cota de muros portantes externos e internos, pilares, ménsulas, forjados, bóvedas, escaleras, cubierta con el restablecimiento del material de cobertura original, elementos de especial protección recogidos en el artículo 3, etc.

3.– La eliminación de añadidos degradantes y cualquier tipo de obra que no revistan interés o contrasten negativamente con las características arquitectónicas originales de la construcción.

4.– La introducción de instalaciones estrictamente necesarias siempre que se respete el resto de las prescripciones del presente Régimen de Protección.

5.– Obras que tienen por objeto reparar algún otro elemento de acabado que esté deteriorado, siempre que no tenga una función estructural o resistente.

6.– Barruko lanak: entokatua eta pintura; zoladurak eta sabaiak egin eta konpontzea, zurgintzako barne lanak, instalazioen konponketa, betiere hori ez bada babesteko araubide honen aukakoa.

12. artikulua.– Ondasun babestua berreraikitzeko edo berreskuratzeko esku hartzeak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa betez erabat, babestutako ondasunak nolabaiteko hondamena pairatuz gero, honako jarduketa edo leheneratzeak onartuko dira:

1.– Dokumentu bidez egiaztatutako egitura-zatiak leheneratzeko lanak. Horretarako, leheneratu beharrekoaren ingurunea argi zehaztuko da, eta bestelako materiala erabiltzea hobetsiko da. Material hori harmonikoa izango da eta lehen begiratuan zaharretik bereizteko modukoa, batez ere zati zaharrekin bat egiten duen puntu horietan.

2.– Zatikatuta dauden lanen dekorazioa berrosatzea, eta zatiren bat galdu duten lanak finkatzea. Horretarako, hutsune txikiak berreraikiko dira lehen begiratuan erraz bereizteko moduko teknikak erabiliz, edo jatorrizko zatiekin maila ezberdinetan lotzen diren gune neutroen bidez, edo jatorrizko euskarria agerian utziz. Baina, batez ere, gune figuratiboak ez dira inoiz «ex novo» leheneratuko, ez eta obraren figurazioari eragiten dioten elementuak sartuko ere.

6.– Obras interiores, como revoco y pintura, ejecución y reparación de solados, trabajos interiores de carpintería, reparaciones de instalaciones, y que en cualquier caso no contravengan algún otro extremo de este Régimen de Protección.

Artículo 12.– Intervenciones de reconstrucción o recuperación del bien protegido.

Con pleno sometimiento a lo dispuesto en el artículo precedente, en caso de deterioro del bien protegido, se admiten las siguientes operaciones o reintegraciones:

1.– Reintegraciones de partes estructurales verificadas documentalmente, llevadas a cabo, según los casos, bien determinando con claridad el contorno de las reintegraciones, o bien adoptando un material diferenciado aunque armónico claramente distinguible a simple vista, en particular en los puntos de enlace con las partes antiguas.

2.– Recomposición de elementos decorativos de obras que se hayan fragmentado, asentamiento de obras parcialmente perdidas reconstruyendo las lagunas de poca entidad con técnica claramente distinguible a simple vista o con zonas neutras enlazadas a distinto nivel con las partes originales, o dejando a la vista el soporte original, y especialmente no reintegrando jamás «ex novo» zonas figurativas o insertando elementos determinantes de la figuración de la obra.